



EBAZPENA, 2021ko azaroaren 26koa, Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendariarena, 2021-2022 ikasturtean eskola-eremuan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzen Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei laguntzak ematen dizkiena.

2021-2022 ikasturtean zehar eskola-eremuan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzen lagundu nahi duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei dei egiten dien Hezkuntzako sailburuaren 2021ko irailaren 1eko Aginduan (2021ko irailaren 8ko EHAA) ezarritakoaren arabera, eta Ebaluazio Batzordearen proposamena aztertuta, deialdi-aginduaren 12. artikulua aplikatuz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Honako diru-laguntza hauek ematea elkarteei, kasu bakoitzean zehazten den zenbatekoarekin:

Elkartea	Lurraldea	Dirulaguntza €
Gao Lacho Drom	Araba	81.814,00
Kale Dor Kayiko	Gipuzkoa	113.689,00
Kale Dor Kayico	Bizkaia	209.053,21
Amuge	Bizkaia	81.333,79

Bigarrena.- Diru-laguntza bi zatitan ordainduko da:

a) Lehen ordainketa aurreratua, diru-laguntzaren % 20koa, emandako laguntza onartu eta berehala egingo dena, erakunde onuradunak lehen ordainketari dagokion zenbatekoaren % 50 justifikatu badu.

b) Gainerakoa, diru-laguntza osoaren % 80, tarteko memoria aurkeztu ondoren ordainduko da. Memoria horretan, proiektuaren ordura arteko garapena jasoko da, ikastetxeetan garatzen ari den lan-plana barne. Memoria hori 2022ko urtarrilaren 7tik 31ra bitartean aurkeztuko da.

Hirugarrena.- Honako elkarte hauek baztertzea zehazten diren arrazoiengatik.

Elkartea	Lurraldea	Uko egitearen arrazoia
Itaka Eskolapiak	Gipuzkoa	12.2 artikulua
Zabalik	Gipuzkoa	12.2 artikulua

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 26a

Lucia TORREALDAY BERRUECO
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaria



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA
*Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako
Zuzendaria*

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
*Dirección para la Diversidad e Inclusión
Educativa*